Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko irailaren 15a, ostirala — 179 — Viernes, a 15 de septiembre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ARETXABALETAKO UDALA

*Liburutegi laguntzaile plaza bat lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, merezimenduak egiaztatzeko epea eta Epaimahai Kalifikatzailearen izendapena.*

2022ko abenduaren 14ko 22/01446 Alkatetza Dekretuaren bidez Aretxabaletako Udaleko liburutegiko laguntzaile plaza bat merezimendu-lehiaketaren bidez hornitzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onetsi ziren (2022ko abenduaren 22 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 241. zk.).

8. oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorriz, hautaketa-prozesu horretan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea eta akatsak zuzentzekoa amaituta, Alkatetzak ebazpena emango du onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onesteko. Ebazpen horretan, auto-balorazioaren inprimakian lortutako puntuazio osoa eta alegatutako hizkuntza-eskakizuna ere jasoko dira. Zerrenda horiek beherantz ordenatuko dira, guztizko puntuazioaren arabera, puntuazio handiena duten izangaiei alegatutako merezimenduak egiaztatzeko eskatze aldera (7. eta 9. oinarri orokorrak).

Bestalde, kudeaketa-gomendioa formalizatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren hirugarren klausulari jarraikiz, hark Epaimahaian parte hartzeko proposatzen dituen pertsonak jakinarazi ditu. Beraz, ebazpen honetan bertan izendatu behar dira, bigarren klausulan eta 16. oinarri orokorrean aurreikusitakoa betez.

Horregatik guztiagatik, alkate honek

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Aretxabaletako Udaleko liburutegiko laguntzaile plaza bat merezimendu-lehiaketa bidez hornitzeko hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda, ebazpen honen I. eranskinean jasotakoa, onestea.

*Bigarren.* Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengotik hasita 10 egun baliodunEko epean parte hartzeko eskaeran alegatutako merezimenduak egiazta ditzatela eskatzea II. eranskinean zerrendatutako izangaiei.

Horretarako, Udaleko web guneko (www.aretxabaleta.eus) Lan Eskaintza atalean eskuragarri dagoen «Merezimenduak egiaztatzea» inprimaki elektronikoa erabili beharko dute.

Errekerimendu honek ez du aurrez juzgatzen aipatu pertsonek alegatutako merezimenduen egiazkotasuna, horiek egiaztatzea eta baloratzea Epaimahai Kalifikatzaileari baitagokio.

Oinarrietan aurreikusitakoaren arabera ofizioz egiaztatu ezin diren merezimenduak egiaztatzea eskatuko da bakarrik.

Parte hartzeko beharkizun gisa eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez duten eta merezimenduak egiaztatzeko eskatu zaien pertsonek kautela moduan aurkeztuko dituzte egiaztagiriak.

## AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA

*Proceso selectivo para la provisión, mediante concurso, de una plaza de auxiliar de biblioteca: lista definitiva de personas admitidas y excluidas, plazo de acreditación de méritos y nombramiento de miembros del Tribunal Calificador.*

Por medio del decreto de Alcaldía 22/01446 de 14 de diciembre de 2022, se aprobaron las bases generales y específicas de la convocatoria del proceso selectivo para la provisión, mediante concurso de méritos, de una plaza de auxiliar de biblioteca del Ayuntamiento de Aretxabaleta (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 241, de 22 de diciembre de 2022).

De conformidad con lo establecido en la base general 8.ª, concluido el plazo de presentación de solicitudes para participar en dicho proceso selectivo así como el de subsanación, la Alcaldía dictará resolución aprobando las listas definitivas de personas admitidas y excluidas, que incluirá también la puntuación total obtenida en el formulario de auto-valoración y el perfil lingüístico alegado. Dichas listas se ordenarán de forma descendente, en base a la puntuación total, al objeto de requerir a las personas aspirantes con mayor puntuación la acreditación de los méritos alegados (bases generales 7.ª y 9.ª).

Por su parte, de conformidad con la cláusula tercera del convenio de formalización de la encomienda de gestión suscrito con la Diputación Foral de Gipuzkoa, esta ha comunicado las personas que propone para formar parte del Tribunal, por lo que en esta misma resolución se procede a su nombramiento en cumplimiento de lo previsto en la cláusula segunda y en la base general 16.ª

Por todo lo anterior, esta Alcaldía

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la lista definitiva de personas aspirantes admitidas y excluidas del proceso selectivo para la provisión, por concurso de méritos, de una plaza de auxiliar de biblioteca del Ayuntamiento de Aretxabaleta que se acompaña como anexo I a la presente resolución.

*Segundo.* Requerir a las personas relacionadas en el anexo II la acreditación de los méritos alegados en su solicitud de participación en el plazo de los 10 días hábiles siguientes al de la publicación de esta resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

A tal efecto, deberán utilizar el formulario electrónico «Acreditación de méritos», disponible en el apartado de Oferta de Empleo de la página web del Ayuntamiento (www.aretxabaleta.eus).

Este requerimiento no prejuzga la veracidad de los méritos alegados por las personas requeridas, cuya comprobación y valoración corresponderá al Tribunal Calificador.

Sólo se requerirá la acreditación de los méritos que no puedan comprobarse de oficio de acuerdo con lo previsto en las bases.

Las personas requeridas para la acreditación de méritos que no están en posesión del perfil lingüístico exigido como requisito de participación, realizarán dicha acreditación de modo cautelar.

EK\CV GAO-I-2023-06633

*Hirugarren.* Ondorengo hauek Epaimahai Kalifikatzaileko kide izendatzea:

Mahaiburua:

— Titularra: Ainhoa Iriondo Odriozola; ordezkoa: Asier Coloma Ugartemendia.

Mahaikideak:

— Titularra: Ainhoa Gainberri Txintxurreta; ordezkoa: Maria Begoña Alkorta Yarza.

— Titularra: Beñat Sardón Quintana; ordezkoa: Ainara Aguirre Jauregui.

— Titularra: Gorka Gorostiza Arbulu; ordezkoa: Alicia Etxeberria Urra. IVAPen ordezkariak.

— Titularra: Itziar Gallastegi Arregi; ordezkoa: Iratxe Etxebarria Arizmendi. IVAPen ordezkariak euskara-probetarako.

Idazkaria:

— Titularra: Nerea Ibarrola Urraca; ordezkoa: Iñaki Ibarrola Urraca.

Azken bokala izan ezik, izendatutako gainerakoak Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioak dira, A1 azpitaldekoak, eta haiei dagokie merezimenduak baloratzea.

Ebazpen honen aurka, prozesutik behin betiko baztertutako pertsonek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, horren aurretik aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-lehendakariari, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Aretxabaleta, 2023ko irailaren 7a.—Garikoitz Iturbe Etxebarria, alkatea. (6633)

DEIALDIA: OP06/2023
(LIBURUTEGIKO LAGUNTZALE PLAZA BATEN LEHIAKETA)

I. ERANSKINA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

— Onartuen zerrenda:

Txanda irekia - sarbide orokorra.

*Tercero.* Nombrar miembros del Tribunal Calificador a las siguientes personas:

Presidencia:

— Titular: Ainhoa Iriondo Odriozola; suplente: Asier Coloma Ugartemendia.

Vocales:

— Titular: Ainhoa Gainberri Txintxurreta; suplente: Maria Begoña Alkorta Yarza.

— Titular: Beñat Sardón Quintana; suplente: Ainara Aguirre Jauregui.

— Titular: Gorka Gorostiza Arbulu; suplente: Alicia Etxeberria Urra. Representantes del IVAP.

— Titular: Itziar Gallastegi Arregi; suplente: Iratxe Etxebarria Arizmendi. Representantes del IVAP para las pruebas de euskera.

Secretaría:

— Titular: Nerea Ibarrola Urraca; suplente: Iñaki Ibarrola Urraca.

Salvo la vocalía señalada en último lugar, todas las demás personas designadas son funcionarias de carrera de la Diputación Foral de Gipuzkoa pertenecientes al subgrupo A1, a quienes corresponderá la valoración de los méritos.

Contra la presente resolución, las personas definitivamente excluidas del proceso podrán interponer directamente recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía-Presidencia, en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Aretxabaleta, a 7 de septiembre de 2023.—El alcalde, Garikoitz Iturbe Etxebarria. (6633)

CONVOCATORIA OP06/2023
(CONCURSO DE UNA PLAZA DE AUXILIAR DE BIBLIOTECA)

ANEXO I

LISTA DEFINITIVA DE PERSONAS ADMITIDAS Y EXCLUIDAS

— Lista de personas admitidas:

Turno libre - acceso general.

| *NAN*<br>*DNI* | *Abizenak eta izena*<br>*Apellidos y nombre* | *Autobalorazioa*<br>*Autovaloración* | *Hizkuntz eskakizuna*<br>*Perfil lingüístico* |
|---|---|---|---|
| ***9834** | ALTUNA,ARCAUZ,NEREA | 100,00000 | 4 |
| ***2587** | LEIBAR,BALANZATEGUI,IZASKUN | 100,00000 | 3 |
| ***3929** | BEITIA,VAÑES,ITZIAR | 86,68134 | 3 |
| ***7150** | GOITIA,LUCAS,IÑAKI | 85,43830 | 3 |
| ***3772** | ARANGUENA,GARCIA,XABIER | 80,00000 | 3 |
| ***8175** | IZAGIRRE ARRIZABALAGA,JOSE MANUEL | 80,00000 | 3 |
| ***9351** | MUÑOZ,MORENO,JAVIER | 80,00000 | 3 |
| ***5859** | TELLERIA,GONZALEZ,GARIKOITZ | 80,00000 | 3 |
| ***8846** | ZUBIA,ALCARAZ,LAIDA | 80,00000 | 3 |
| ***5759** | CANO,PAVO,JON | 25,40792 | 3 |
| ***8555** | DIEZ,BARRIO,RUTH | 20,00000 | 3 |
| ***8341** | GALDOS, MENDIA,IRATI | 0,61650 | 3 |
| ***4476** | DADIE,BARRON,NOA | 0,00000 | 3 |
| ***9879** | GARITANO,KORKOSTEGI,OIHANA | 0,00000 | 3 |

EK\CV GAO-I-2023-06633

— Baztertuen zerrenda:

Txanda irekia - sarbide orokorra.

| *NAN* | *Abizenak eta izena* |
|---|---|
| ***4872** | MENDINUETA,GARCIA,NAGORE (31) (58) |

(31) Ez du tasa ordaindu.

(58) Eskabidea ez du aurkeztu behar den lekuan.

*Oharrak:*

— Onarpenen zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei aitortzen zaienik hautaketa-prozesuan eskatutako baldintzak betetzen dituztela.

— Auto-balorazioak izangaiak bere eskaeran alegatutako eta auto-baloratutako merezimenduen emaitza baino ez du islatzen. Ez du esan nahi puntuazio hori zuzena denik.

II. ERANSKINA

PARTE HARTZEKO ESKAERAN ALEGATUTAKO MEREZIMENDUAK EGIAZTATU BEHAR DITUZTEN IZANGAIAK

Txanda irekia - sarbide orokorra.

— Lista de personas excluidas:

Turno libre - acceso general.

| *DNI* | *Apellidos y nombre* |
|---|---|
| ***4872** | MENDINUETA,GARCIA,NAGORE (31) (58) |

(31) No haber abonado la tasa.

(58) No haber presentado la instancia en el lugar adecuado.

*Notas:*

— El hecho de figurar en la relación de admisiones no prejuzga que se reconozca a las personas interesadas la posesión de los requisitos exigidos en el proceso selectivo.

— La auto-valoración refleja únicamente el resultado de los méritos alegados y auto-valorados por la persona aspirante en su solicitud. No significa que dicha puntuación sea correcta.

ANEXO II

ASPIRANTES QUE DEBEN ACREDITAR LOS MÉRITOS ALEGADOS EN SU SOLICITUD DE PARTICIPACIÓN

Turno libre - acceso general.

| *NAN*<br>*DNI* | *Abizenak eta izena*<br>*Apellidos y nombre* | *Autobalorazioa*<br>*Autovaloración* | *Hizkuntz eskakizuna*<br>*Perfil lingüístico* |
|---|---|---:|---:|
| ***9834** | ALTUNA,ARCAUZ,NEREA | 100,00000 | 4 |
| ***2587** | LEIBAR,BALANZATEGUI,IZASKUN | 100,00000 | 3 |
| ***3929** | BEITIA,VAÑES,ITZIAR | 86,68134 | 3 |
| ***7150** | GOITIA,LUCAS,IÑAKI | 85,43830 | 3 |
| ***3772** | ARANGUENA,GARCIA,XABIER | 80,00000 | 3 |
| ***8175** | IZAGIRRE ARRIZABALAGA,JOSE MANUEL | 80,00000 | 3 |
| ***9351** | MUÑOZ,MORENO,JAVIER | 80,00000 | 3 |
| ***5859** | TELLERIA,GONZALEZ,GARIKOITZ | 80,00000 | 3 |

EK\CV GAO-I-2023-06633